

FAMILIENDAKO INFORMAZIO OROKORRA

Kontuz! Oharra: dokumentu honen edukia informatzeko baino ez da, baldintzak dagokion araudian argitaratutakoak dira.

2026ko urtarrilaren 22ko 6/2026 Ebazpenean aurreikusitako prozedura aplikatuko zaie 2025-2026 ikasturtean ikastetxean matrikulatuta ez dauden haurrei, bai eta eskolatuta egonik Haur Hezkuntzako lehen zikloko beste ikastetxe batera aldatzea eskatzen dutenei ere.

Plaza eska dezakete:

- 2024an eta 2025ean jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak eta 2026an jaiotakoen legezko ordezkariak, baldin eta 2026ko maiatzaren 11ra bitarte jaio badira, egun hori barne.
- Eskabidea aurkezten den unean jaio ez diren haurrentzat ere eskatu ahal izango da plaza, baldin eta horien jaiotza-data 2026ko lehen sei hilekoa bada, eta hori justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (medikuaren txostena). Onarpen-prozesuan jarraitzeko, haurra maiatzaren 11ra arte (egun hori barne) jaio beharko da, eta jaiotza-ziurtagiria 2026ko maiatzaren 12ko 23:59ak baino lehen aurkeztu beharko da.
- Eskatzen den haurraren jaiotza-dataren arabera eskatu eta esleituko dira plazak:
 - 0 urte:** 2025eko irailaren 2tik 2026ko maiatzaren 11ra bitartean jaiotako haurrak, biak barne.
 - 1urte :** 2024ko irailaren 2tik 2025eko irailaren 1era bitartean jaiotako haurrak, biak barne.
 - 2urte:** 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko irailaren 1era bitartean jaiotako haurrak, biak barne.
- **Eskaera bakarra** aurkeztuko da haur bakoitzarentzat.
- **Eskaera egin ahal izateko, Berako Udalarekin zorrik ez izatea beharrezkoa da.**

ESKAERAK

Aurkezteko epea: otsailaren 23tik martxoaren 6ra, biak barne Educa plataformaren bitartez,

Educaren bidez, familiek zuzenean aurkeztuta edo lehenik eskatutako ikastetxearen erakunde titularrak zehaztutako lekolean aurrez aurre aurkeztuta. Kasu horretan, eskaera Navarra.es atariko izapideen katalogoan eta, hala badagokio, erakunde titular bakoitzaren webgunean argitaratutako fitxan proposatutako ereduaren arabera izango da.

DOKUMENTAZIOA

Aurkeztutako dokumentazio guztia indarrean egon behar du 2026ko martxoaren 6an.

a) Nahitaezkoa:

- Gurasoen edo legezko ordezkarien NANaren, AIZren, pasaportearen edo agiri baliokidearen fotokopia.
- Familia-liburuaren fotokopia edo familia-lotura egiaztatzen duen zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bitartekoren fotokopia.
- Eskabidea jaio ez den haur bati badagokio, medukuaren txostenaren fotokopia, 2026ko lehen seihilekoan jaiotzeko aurreikusitako data egiaztatzen duena. Adopzio- edo harrera-prozesuan dauden haurren kasuan, jaiotza-data egiaztatzen duen dokumentua sartuko da.

b) Onarpen-irizpideak egiaztatzeko eta baloratzeko dokumentazioa:

Onarpen-irizpideak egiaztatzeko eta baloratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa [2026ko urtarilaren 22ko 6/2026 Ebazpenean](#) agertzen da.

Honako datuak kontsultatzeko baimena eman daiteke:

- familia ugariaren titulua
- guraso bakarreko familiaren titulua
- plaza eskatzen den haurren desgaitasun-ziurtagiria.
- 2024ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena.

Gainerako dokumentazioa, edo kontsultatu ezin izan diren datuei dagokien dokumentazioa, **interesdunek aurkeztu beharko dute**.

c) Hezkuntza-premia bereziak baloratzeko justifikazio-dokumentazioa:

Balorazio hori justifikatzen duten txostenak.

Eskaeraren behin-behineko egoera apirilaren 22an ikusiko dute familiek Educa atarian, eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira apirilaren 23tik 29ra.

EBAZPEN-FASEAK

Eskabideak baloratzeko, eskatutako ikastetxearen erakunde titularren hautaketa-batzordeak, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, [2026ko urtarilaren 22ko 6/2026 Ebazpenean](#) agertzen den baremoa aplikatuko du.

Lehentasunezko irizpideak baloratu ondoren, berdinketa-egoerak erator badaitezke, egoera horiek hurrenez hurren aplikatuz ebatziko dira, martxoaren 6ko 16/2024 Foru Aginduaren 12.3 artikulua. Lehentasunezko irizpideak berdinketa hautsi arte. Berdinketak irauten badu, gurasoen **lan-egoeraren edo egoera akademikoaren irizpide osagarria** erabiliko da. Eta irizpide osagarri horrek berdinketa desegiteko balio ez badu, Hezkuntza Sailak hezkuntza-etapa guztietarako egindako **zozketa publikoaren** emaitza aplikatuz ebatziko da berdinketa.

ONARPENA

Behin-behineko onarpenak Educa atarian eta lehen aukera gisa eskatutako ikastetxean argitaratuko dira maiatzaren 5ean.

Maiatzaren 6tik 12ra, biak barne, erreklamazioak, zuzenketak edo uko egiteak aurkeztu ahal izango dira.

Haurra 2025-2026 ikasturtean matrikulatuta dagoen ikastetxea ez den beste ikastetxe batean behin betiko onartzeak, **automatikoki**, jatorrizko ikastetxean eskola-plaza galtzea ekarriko du, 2026-2027 ikasturtetik aurrerako ondorioekin.

Jatorrizko ikastetxean eskola-plaza ez galtzeko onarpen-prozesuan jarraitu nahi ez badu, **uko egin** beharko dio Educa atariaren bidez maiatzaren 6tik 12ra.

Maiatzaren 15ean argitaratuko dire lehen behin-betiko zerrendak.

MATRIKULA

Matrikula aurrez aurre egingo da, maiatzaren 18tik 22ra, Mukixu udal haurtzaindegian (9:00-16:00).

Dokumentazioa:

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia.

- Amaren eta aitaren edo legezko ordezkarien 2025eko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren fotokopia. Hala egin behar ez badute, hori egiaztatzen duen dokumentazio ofiziala eta/edo beste errenta edo diru-sarrera batzuk jaso izana justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, edo, bestela, 2025. urteari dagozkion errenten eta diru-sarreraren zinpeko aitortpena, egoera sozioekonomikoa egiaztatzen duen txosten sozialarekin eta/edo zentroaren titularraren den tokiko erakundeak urte horretako diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuekin batera.

- Agiri honen entrega 2025. urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren kanpainaren azken egunera arte atzeratu ahal izango da.

- Ordainagiriak helbideratuko diren banku-erakundearen kontu-zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia berariaz adierazita.
- Hala badagokio, dagokion kuota ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Hala badagokio, haurra behar bezala artatzeko beharrezkoa den osasun-informazioa.
- Hala badagokio, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako jaiotzagatiko familia-unitateko kideen kopuruaren aldaketaren egiaztagiriak.

Matrikula aurrez aurre egingo da, maiatzaren 18tik 22ra, haurra onartu den ikastetxeko erakunde titularrak zehaztutako lekuan.

Matrikula adierazitako epean egiten ez bada, lortutako plaza galduko da, eta ordura arte haurra egon daitekeen itxaron-zerrendetatik eratorritako eskubideak bertan behera geratuko dira.

Aukera hobetzea:

- Eskabidean lehen aukerako ikastetxe gisa izendatutakoa ez den beste ikastetxe batean plaza lortu duen haurrak, matrikula formalizatzean, "aukera hobetu" nahi duela adierazi ahal izango du, eta egon daitekeen itxarote-zerrendetan geratuko da. Hobekuntza-aukera hori aukeratzeak berekin ekarriko du eskatutako edozein ikastetxetan plaza bat lortzeko aukera izatea, esleitutako ikastetxeak baino lehentasun handiagoarekin.
- Haurrak aukera hobetzen ez badu, matrikula esleitutako ikastetxean formalizatzeak berekin ekarriko du eskatutako beste aukeretako baten itxaron-zerrendetan sartuta ez jarraitzea.
- Aukerako hobekuntza 2026ko ekainaren 12ra arte aplikatuko da, egun hori barne.
- Aukera hobetzeko prozedura aplikatuzetik erator daitekeen matrikula berri bakoitza formalizatzean, interesdunen nahierara geratuko da etorkizuneko aukera-hobekuntzei uko egiteko aukera edo hobekuntza horiei heltzen jarraitzeko aukera.
- Aukera hobetzeko prozedura aplikatzearen ondorioz plaza berri bat lortzen bada, automatikoki galduko da lehen esleitutako plaza, eta matrikula berria horretarako ezarritako epeetan formalizatu beharko da.
- Matrikula epe horietan egiten ez bada, lortutako plaza galduko da, eta une horretara arte haurra sartuta egon daitekeen itxaron-zerrendetatik eratorritako eskubideak bertan behera geratuko dira.

TARIFAK

Jantokiko tarifak erakunde titular bakoitzak horretarako ezartzen duen araudiaren arabera aplikatuko dira.

ONARPEN-BAREMOA

[2026ko urtarrilaren 22ko 6/2026 Ebazpenak](#) ezarritako baremoa aplikatuko da.

ONARTZE-PROZESUAREN EGUTEGIA

Zozketa publikoa Hezkuntza Sailean (berdinketak ebazteko erabili da)	Otsailak 13
Eskaerak aurkezteko epea	Otsailaren 23tik martxoaren 6ra
Eskaeren behin-behineko egoera ikusgai	Apirilaren 22an
Behin-behineko egoeraren aurkako erreklamazioak eta/edo zuzenketak	Apirilaren 23tik 29ra
Behin-behineko zerrenden argitaratzea	Maiatzaren 5ean
Erreklamazioak	Maiatzaren 6tik 12ra
Jaiotza-ziurtagiria aurkezteko epearen amaiera (2026ko martxoaren 7tik maiatzaren 11ra bitartean jaiotakoak)	Maiatzaren 12an
Behin-betiko 1. zerrendaren argitaratzea	Maiatzaren 15ean
Matrikulatzeko 1. epea	Maiatzaren 18tik 22ra
Behin betiko 2. zerrenda argitaratzea	Maiatzaren 26an
Matrikulatzeko 2. epea	Maiatzaren 27 eta 28an
Behin betiko 3. zerrenda argitaratzea	Maiatzaren 29an
Matrikulatzeko 3. epea	Ekainaren 1 eta 2an
Aukera hobetzeko epearen bukaera	Ekainaren 12an
Itxaron-zerrenden indarraldiaren bukaera	2027ko otsailaren 12an